

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

6188

1476/2021 EBAZPENA, azaroaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikokoak Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Erizaina kategorian, Osakidetza zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikokoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, eta indarrean dauden eta aplikagarriak diren gainerako xedepanak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-probetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikokoak onartzea (I. eranskina) Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Erizaina kategorian, Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez eskainitako destinoen zerrenda onartzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen IV. eranskinean dagoen gai-zerrenda onartzea.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 25etik 2022ko otsailaren 24ko 14:00ak arte ezartzea, oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 9.3 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 25a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

I. ERANSKINA

ESTATUTUPEKO LOTURA FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROBAK ARAUTUKO
DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK DIPLOMADUN SANITARIOAK LANBIDE-TALDEKO
ERIZAINA KATEGORIAN, OSAKIDETZAKO ZERBITZU SANITARIOETAKO
ERAKUNDEETAKO DESTINOETAN

1.– Deialdiaren xede diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Erizaina kategoriako Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak, II. eranskinean jasota daudenak alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3. oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

2.– Izangaien betekizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, OLTko titulua, Erizaintzako Unibertsitate Diploma edo Erizaintzako Gradua izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edonola ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak betetzea, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskaintako destinoen lanbide-taldearen arabera:

A2 taldea (B talde zaharra): 20 euro.

3.– Lehiaketaldiaren garapena.

3.1.– Oposizioaldia.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio probaren edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu, eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetzari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai probak prestatzean, bai lehiaketaldian. Epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizuna bete beharko dute pertsona horiek.

Epaimahaiak Osakidetzari kanpoko aholkularitza-erakundeetara jotzea eskatu ahal izango dio ere bai, probak prestatzeko eta oposizioaldian probekin zerikusia duten gai guztietarako. Horretarako, Osakidetzak behar diren neurriak jarriko ditu kanpo-erakunde aholkularien parte-hartzea gauzatzeko.

Probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

Halaber, proba prestatzeko bibliografia ere eranskin horretan jasoko da.

3.2.– Oinarri orokorretako 14. apartatuan zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiek honako dokumentu hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, 14.2. oinarrian zerrendatzen den dokumentazioaz gain:

– Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako OLTko titulua, Erizaintzako Unibertsitate Diploma edo Erizaintzako Graduko tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen dena, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

3.3.– Lehiaketaldia.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera balioztatuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera.

3.4.– Lanpostuaz jabetzea.

Oinarri orokorretako 17. apartatuan aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honetako destinoren bat jabetzan hartzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte lanpostuaz jabetzeko ekitaldian:

– Elkargokide-ziurtagiria.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: ERIZAINA

Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1473/2021 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

a) Barne-sustapeneko txandako deialdia: 28 destino.

Sarbide orokorra: 26.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 2.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 2.

b) Txanda askeko deialdia: 802 destino.

Sarbide orokorra: 746.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 56.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 56.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzen duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundee-tako destinoak Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez zehazten direnean zehaztuko dira. Ebazpen hori Osakidetzaren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, aldizkari horretan Osakidetzako Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko indarreko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren.

III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA DIPLOMADUN SANITARIOAK LANBIDE-TALDEKO
ERIZAINA KATEGORIAN, OSAKIDETZAKO ZERBITZU SANITARIOETAKO
ERAKUNDEETAKO DESTINOETAN

1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte hautagaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

1.– Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, Gizarte Segurantzakoetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan edo edozein administrazio publikotan edo Europar Batasuneko gainerako kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan erizain gisa edo erizaintza-eremuko kudeaketako lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,23 puntu.

2.– Lehen Mailako Arretako landa-eremuko osasun-eremuetan errefortzuko izendapena duten langileek emandako zerbitzuak zenbatzeko, hilabete osoko zerbitzuak aitortuko zaizkie, eta honako arau hauen arabera kalkulatu dira:

a) Hilabete bat, edo proportzionalki dagokion zatia, egindako ehun eta berrogeita bost ordu edo frakzio bakoitzeko.

b) Hilabete natural baten barruan ehun eta berrogeita bost ordu baino gehiago egin badira, egindako zerbitzuen hilabete bakarra baloratuko da, eta egindako gehiegizko orduak ezin izango dira aplikatu aurreko a) erregelari ezarritako emandako zerbitzuen zenbaketan.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzen diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde aurreko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,07 puntu hilabete bakoitzeko.

c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,09 puntu hilabete bakoitzeko.

d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,12 puntu hilabete bakoitzeko.

e) Lehiatzen den lanpostu berean B taldean emandako zerbitzuak: 0,23 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu):

Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduurreko prestakuntza:

Espediente akademikoaren balorazioa honela egingo da:

$$\frac{(\text{Bikain kopurua} \times 6) + (\text{Ohorezko matrikulen kopurua} \times 9)}{\text{Ikasgaiak, guztira}}$$

Ez dira ebaluatuko, eta, horregatik, ez dira zatitzailean sartuko, ez ofizialki baliozkotu diren ikasgaiak, ez erlijioa, prestakuntza politikoko, gorputz-hezkuntzako, hizkuntzetako, etxeko lanetako, autopsia mediko-legalaren nozioetako ikasgaien kalifikazioak, ez Laguntzaile Tekniko Sanitarioko ikasketen, Erizaintzako Diplomaren edo Erizaintzako Graduaren berezko edukiarekin funtsezko loturarik ez duten beste ikasgai batzuen kalifikazioak.

b) Graduondoko prestakuntza:

- Cum laude doktore-titulua: 10 puntu.
- Doktore-titulua: 9 puntu.
- Graduondoko masterra: 6 puntu.
- Unibertsitateko Aditu edo Espezialista titulua: 5 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 4 puntu.
- Lizentzia-gradua (bikaina edo ohorezko matrikula): 3 puntu.
- Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,25 puntu.
- Lotutako bestelako unibertsitate-tituluak: 2,5 puntu.

Cum laude doktore gisa puntuazioa emanez gero, ez da punturik emango Doktore gisa. Cum laude doktorea edo Ikertzeko nahikotasuna edo Ikasketa aurreratuen diploma lortzeko balio duten programetako doktoretza-ikastaroek ez dute punturik emango.

c) Prestakuntza espezializatua:

- Ofizialki onartutako espezialitatearen batean Erizain espezialistaren titulua izateagatik: 3 puntu.

d) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 ordura arte: 0,20 puntu.
- 10 eta 19 ordu bitartean: 0,75 puntu.
- 20 eta 29 ordu bitartean: 1,25 puntu.
- 30 eta 49 ordu bitartean: 2 puntu.
- 50 eta 99 ordu bitartean: 3 puntu.
- 100 eta 249 ordu bitartean: 4 puntu.
- 250 eta 599 ordu bitartean: 5 puntu.
- 600 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

- Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.
- Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztagirien kasuan, edo kredituak izan bai baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,20 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak balioztatuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

e) Irakaskuntza-jarduerak:

- Unibertsitateko fakultateko irakasle titularra edo elkartua (urteko): 0,75 puntu.
- Dedikazio partzialeko irakaslea Erizaintzako Unibertsitate Eskolan (8 orduko): 0,050 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,750 puntu.
- Praktika klinikoko irakasle-tutorea, venia docendi delakoarekin (urteko): 0,750 puntu.
- Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (ordu bakoitzeko): 0,050 puntu.

f) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearren, komunikazioak aurkeztearren, hitzaldiak ematearren edo mahai-inguruetan parte hartzearren:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 2 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.

– Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

– Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko apartatu honetan zehaztu ez den merezimendurik.

g) Hizkuntzak (gehienez, 3 puntu):

– Ingelesa: gehienez, 1,5 puntu.

– Frantsesa: gehienez, 1,5 puntu.

– Alemana: gehienez, 1,5 puntu.

h) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

3) Euskara:

– 2. HE: 18 puntu.

– 1. HE: 9 puntu.

IV. ERANSKINA

ERIZAINA

I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

1.– Erizaintza ereduak eta teoriak: ereduak eta teoriarik nagusien ezaugarri orokorrak. (Florence Ningtingale, Virginia Henderson, Marjory Gordon, Dorotea Orem).

2.– Zaintzen metodologia: erizaintza-prozesua. Ezaugarriak eta faseak. Beharrezko arabariko balorazio diagnostikoa (Virginia Henderson). Balorazioa egiteko tresnak. Erizaintzako diagnostikoak: kontzeptua eta motak NANDA taxonomiaren arabera. Erizaintzako zaintzen planifikazioa: emaitzak eta esku-hartzeak (NOC eta NIC).

3.– Komunikazio-teknikak eta -trebeziak: ahozko komunikazioa eta ez-ahozkoa, entzute aktiboa. Erizaintza prozesuko hasierako baloraziorako elkarriketa klinikoa. Erizainaren eta pazientearen eta senideen arteko harreman profesionala. Laguntza-harremana.

4.– Ohean egon behar den pazientearen balorazioa eta erizaintzako zaintzak. Larruazalaren zaintza orokorrak. Larruazalaren osotasunaren nariaduraren balorazio integrala. Presiozko ultzeren balorazioa eta erizaintzako zaintzak: kontzeptua, arrisku-faktoreak, kokapena. Agertze-prozesuak eta estadioak. Braden-Bergstrom eskala. Prebentzio-neurriak eta tratamendua: apositu-mota eta materialik erabilienak. Gorputzaren mekanikaren oinarriak, zaintzari aplikatuta.

5.– Elikadura eta nutrizioa: kontzeptua eta desberdintasuna. Elikagaien sailkapena. Egoera nutrizionalaren balorazioa. Arazo hauek dituzten pertsonen zaintzak: desnutrizioa, deshidratazioa eta obesitatea. Nutrizio enterala edo parenterala duten pertsonen zaintzak. Dieta terapeutikoak: kontzeptua, ehundura- eta gogortasun-aldaketadun dietak. Dieta progresiboak, zuntz eta energia kontrolatuko dietak.

6.– Arnasketara-azaroak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zaintzak: arnas gutxiegitasun akutua, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, asma, infekzio-prozesuak pneumonia eta tuberkulosia. Erlazionatutako prozedurak: oxigenoterapia. Arnas fisioterapia. Sekrezioak xurgatzea. Arteria-gasometria. Espirometria. Aireztapen mekaniko inbaditzailea eta ez-inbaditzailea duten pertsonen zaintzak. Trakeostomien ondoriozko zaintzak. Inhalagailuen erabilpena.

7.– Arazo kardiobaskularrak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zaintzak: bihotz-gutxiegitasuna, sindrome koronario akutua, bihotzeko arritmiak. Hipertentsio arteriala. Gorputz-adarretako iskemia kronikoa, tronbosi benoso sakona. Erlazionatutako prozedurak: elektrokardiograma egitea. Alterazio elektrokardiografiko larrien interpretazioa. Balorazio baskularra. Orkatila-besoa indizea. Ultzera arterial eta benosen zaintza.

8.– Digestio-azaroak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zaintzak: odoljario digestiboa, hesteetako gaixotasun inflamatorioa. Gastroenteritisa. Pankreatitisa. Zirrosia. Hepatitisa. Erlazionatutako prozedurak: zundaketa nasogastrikoa. Ostomiak dituzten pertsonen zaintzak. Dieta terapeutikoak: idorgarriak eta gibela eta pankrea babestera bideratuak.

9.– Arazo endokrinologikoak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zaintzak: Diabetesa. Hipo eta hipertiroidismoa. Erlazionatutako prozedurak: gluzemia-kontrola. Oin diabetikoa duten pertsonen zaintzak. Intsulina-mendeko pertsonen zaintza. Diabeteserako dieta.

10.– Arazo neurologikoak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zaintzak: istripu zerebrobaskularra. Alzheimerra. Epilepsia. Esklerosi anizkoitza eta alboko esklerosi amiotrofikoa. Erlazionatutako

prozedurak: monitorizazio neurologikoa. Kontzientzia-mailaren balorazioa. Begi-ninien erantzunaren azterketa eta fokatze neurologikoaren zeinuak.

11.– Sistema muskulu-eskeletikoko arazoak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zainketak. Lokomozio-aparatuko gaixotasun nagusiak: osteoporosia, artrosia eta artritis erreumatoidea. Traumatismo muskulu-eskeletikoak: hausturak, anputazioak, bihurrituak eta luxazioak. Erlazionatutako prozedurak: immobilizazio-sistemen erabilpena eta zainketak (ferulak, igeltsuak, bendatzeak, trakzioak eta kanpoko finkapen-sistemak). Aldaka- edo/eta belaun-protesia duten pertsonak mugitzea.

12.– Haurdun dauden emakumeen balorazioa eta erizaintzako zainketak: Aldaketa fisiologikoak. Elikadura eta higiena. Haurdunaldiko arazorik ohikoenak. Ama izateko prestakuntza. Erdiberriaroko zainketak, aldaketa fisiologikoak eta psikologikoak eta arrisku-egoeren identifikazioa.

13.– Giltzurrun- eta gernu-sistemako arazoak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zainketak: giltzurrun-gutxiegitasun akutua eta kronikoa. Erlazionatutako prozedurak: maskuriko zunda sartzea eta zaintzea. Urostomiak dituzten pertsonen zainketak, eta gernu-inkontinentziaren inguruko zainketak. Arazo nefrologikoak dituzten pazienteentzako dieta terapeutikoa.

14.– Arazo otorrinolaringologiko nagusiak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zainketak: Otitisa. Ménière-ren gaixotasuna. Erizaintzako prozedurak eta teknikak: audiometria, sudurreko frotisa jasotzea. Epistaxia.

15.– Paziente kirurgikoaren zainketak. Ebakuntza aurrekoak: ebakuntza aurreko bisita, pazientearen harrera, ebakuntzarako prestatzea. Ebakuntza egin bitartean: pazientearen zainketak esku-hartzeak dirauen bitartean. Anestesia mota eta farmakoen kudeaketa. Ebakuntza ondoko zainketak: Kirurgia osteko zaintza-unitateak. Zaindu eta kontrolatzeko teknikak: bizkortzearen ABC-a, monitorizazio elektrokardiografikoa eta konstanteena. Erlazionatutako prozedurak: zaurien sendaketak, drainatzeen kontrola, balantze hidrikoa, jostura eta puntuak eta grapak kentzea. Zain-kateter periferikoa eta zentrala jartzeko eta mantentzeko zainketak. Erizaintzako prozedura hemoderibatuen transfusioan.

16.– Arazo onkologikoak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zainketak. Gaixotasun neoplasikoa: kontzeptu orokorrak. Tratamendu-metodoak eta zainketak: erradioterapia eta kimioterapia. Medikamentu antineoplasikoak: Sailkapena eta albo-ondorioak. Medikamentu gehigarriak. Medikamentu zitostatikoen manipulazioa.

17.– Egoera terminalean dauden pertsonen zainketak: balorazio integrala eta zainketa-planak. Zainketa aringarriak. Mina, ezaugarriak eta neurtzeko eskalak: motak eta sailkapena. Pazientearen eta senideen arreta. Dolua: ezaugarriak, motak, faseak (K.Ross) eta doluaren maneia.

18.– Adineko pertsonen eta haien senideen balorazioa eta erizaintzako zainketak. Zahartze-prozesuko aldaketa nagusiak: fisiologikoak, psikologikoak eta sozialak. Balorazio geriatriko integrala: klinikoa (anamnesia eta azterketa fisikoa), funtzionala (Barthel eskala), mentala (egoera kognitibo eta afektiboaren balorazioa, Pfeiffer-en testa, MMSE) eta soziala. Sindrome geriatrikoak. Mende-kotasun graduaren balorazioa.

19.– Jaioberri osasuntsuaren zainketak: Zainketa orokorrak. Jaioberri osasuntsuaren ohiko hazkuntza eta garapenaren ezaugarriak. Sortzetiko gaixotasunen eta gaixotasun metabolikoen detekzio goiztiarra.

20.– Gaitzen bat duen jaioberriaren zainketak: pisu gutxiko jaioberria. Goiztiarra. Konbulzio-krisiak. Arnas gutxiegitasun akutua. Arazo gastrointestinal akutua. Deshidratazioa. Balorazio integrala. Arrisku handiko jaioberri bat duen familia baten zainketak.

21.– Hautzaroko zainketak: Lehen Mailako Arretako kontrolak eta bisitak. Garapen-etapak. Elikadura eta nutrizioa. Dieta orekatua, haurren obesitatearen prebentzioa. Higienea. Aho-hortzen osasuna. Istripuen prebentzioa: etxean, eskolan eta trafiko-istripuak. Tratu txarren detekzioa eta jarduteko protokoloa. Ohitura osasungarriak hartzea: senideen papera.

22.– Nerabezaroko zainketak: Ohitura osasungarriak hartzea. Elikadura eta dieta orekatua. Ohitura toxikoen prebentzioa: alkohola, tabakoa eta drogak. Sexualitatearen hasiera. Sexu bidezko infekzioen prebentzioa. Sistema antisorgailuak.

23.– Arazo mentalak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zainketak: eskizofrenia eta beste nahasmendu psikotiko batzuk, antsietate-prozesuak, gogo-aldartearen nahasmenduak, sintoma somatikoaren nahasmenduak, elikadura-nahasmenduak. Euste mekanikoa: prozedura eta zainketak.

24.– Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Plana (2017-2021). Substantzien kontsumoari lotutako nahasmendu nagusiak: tabakoa, alkohola, kokaina, heroina eta kanabisa. Sintomatologia, larrialdietako tratamendua eta zainketak.

25.– Gaixotasun infekziosoak dituzten pertsonen balorazioa eta erizaintzako zainketak. GIB.

26.– Epidemiologia: kate epidemiologikoa. Gaixotasun transmitigarriak. Gaixotasun transmitigarrien prebentzio- eta kontrol-neurriak. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak. Osasuneko prebentzio-neurriak: Kontzeptu orokorrak. Antiseptikoak. Desinfektatzaileak. Desinfekzioa. Esterilizazioa (esterilizatzeko metodoak, material esterila nola manipulatu eta mantendu). Hondakin sanitarioen kudeaketa.

27.– Egoera kritikoetan esku hartzea. Oinarrizko bizi-euskarria eta aurreratua. Kasu hauetako berezitasunak: bularraldeko mina, miokardioko infartu akutu, istripu zerebrobaskularra, politraumatismoa, erredura handiak eta elektrokuzioa, shock-a, intoxikazioa, larrialdi psikiatrikoa, hipotermia, hipertermia, bero-kolpea eta deshidratazioa.

28.– Prebentzio-jarduerak eta osasunaren eta bizi-ohitura osasungarrien sustapenaren inguruak. Esku-hartze komunitarioa. Osasun-programak. Osasun-agenteen prestakuntza.

29.– Immunizazioak: Kontzeptua. Txerto-motak eta sailkapena. Kontraindikazioak. Konplikazioak. Txertoa gordetzea, jartzea eta txertaketa-jarraibideak. EAEko txertoen egutegia.

30.– Paziente kronikoen arreta. Ikuspegia, oinarriak eta garapen estrategikoa. Paziente kronikoen eta haien senideen erizaintza-zainketak: bereziki, paziente kroniko pluripatologiko konplexuaren inguruko prozesu integratuari dagokionez.

31.– Medikamentuen sailkapen orokorra: farmakoak xurgatzea eta kanporatzea. Toxizitatea eta albo-ondorioak. Farmakozaintza. Kontrako erreakzioen jakinarazpena. Medikamentuak gordetzeko baldintzak. Medikamentuaren zentzuzko erabilpena.

32.– Medikamentuak ematea: segurtasun klinikoa farmakoak ematean. Emateko bideak: definizioa eta motak. Aukerako guneak, teknikak eta arazorik ohikoenak. Dosia kalkulatzeko. Medikamentuak etxean ematea: paziente polimedikatuen zaintza. Terapiarekiko atxikidura: kontzeptua eta esku-hartzea.

33.– Erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak. Pazientearen autonomia, eskubideak eta betebeharrak, informazio eta dokumentazio klinikoari dagokienez.

34.– Bioetikaren funtsezko oinarriak. Erizaintzako kode deontologiko espainiarra. Sekretu profesionala: kontzeptua eta arauketa juridikoa. Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 199. artikulua.

35.– Asistentziaren kalitatea. Zainketen kalitatea etengabe hobetzeko ekintzak. Erizainen jarduna eta zainketak ebaluatzeko adierazleak. Ebidentzian oinarritutako erizaintza-zainketak.

36.– Ikerketa-metodologia: diseinua, bilketa eta analisia. Teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak. Lan zientifiko baten egitura metodologikoa eta faseak: kontzeptuala, diseinua eta planifikazioa, enpirikoa, analitikoa eta ezagutzera emateari dagokionez.

37.– Oinarrizko ikerketa erizaintzan: Arazoak identifikatzeko eta lehentasunak ezartzeko azterketak. Erizaintza aplikatuko ikerketa: Azterketa deskriptiboak eta ikerketa-diseinuak erizaintzako diagnostikoaren eremuan.

38.– Estatistika deskribatzailea. Banaketa motak eta banaketa definitzen duten parametroak. Estatistika inferentziala: konfiantza-tarteak. Hipotesi-testak.

39.– Segurtasun klinikoa: pazientearen segurtasunaren oinarrizko kontzeptuak. Asistentzia sanitarioarekin erlazionatutako infekzioak, prebentzio-neurriak. Eskuen higiena eta eskularruen erabilpen egokia. Ospitaleko isolamendua: kontzeptua, motak eta deskripzioa. Segurtasun-gorabeheren jakinarazpena. Gertakizun kaltegarrien saihesgarritasuna eta eragina. Erorikoak.

40.– Genero-indarkeria. Tratu txarren aurrean jarduteko protokoloa.

II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.– Lanbide Sanitarioen Antolamendua: lanbide sanitarioen jarduna.

2.– Osasun Sistema Nazionalaren kohesioko eta kalitateko xedapen orokorrak. Prestazioak.

3.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren arau orokorrak. Eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Lanaldia, baimenak, lizentziak. Bateriaezintasunak.

4.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen xedapen orokorrak. Euskadiko Osasun Sistema: araudia eta herritarren eskubideak eta eginbeharrak. Kontratu-programa. Osakidetza Ente Publikoaren konfigurazioa. Zuzendaritza-antolakuntza. Gestio-araubidea.

5.– Osakidetza Ente Publikoaren definizioa. Xedeak. Zuzendaritza-antolakuntza: zerrendatzea. Zuzendaritza Nagusia: eraketa. Zerbitzu-erakundeak: lege-aitorpena.

6.– Pertsonen eskubideak eta betebeharrak Euskadiko osasun-sisteman.

7.– Pazientearen autonomiaren gaineko printzipio orokorrak, eta eskubideak eta betebeharrak informazio eta dokumentazio klinikoko gaietan. Informazio sanitariorako eskubidea. Intimitaterako eskubidea. Pazientearen autonomiaren errespetua. Historia klinikoa. Alta-txostena eta bestelako dokumentazio klinikoa.

8.– Eusko Legebiltzarraren 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondatea.

9.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak: legearen xedea eta hildako pertsonen datuak. Datuak babestearen printzipioak. Pertsonen eskubideak.

10.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.

11.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.

12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.

13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.

14.– Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak 2017-2020.

15.– Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko jardun-eremuak eta neurriak: Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 2. Planeko (2013-2019) Irudia eta Komunikazioa eta Kanpo-harremanak.

GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– Raile M, Marriner A. Modelos y teoría en enfermería. 9. edizioa. Madril: Elsevier. 2018.

2.– Alfaro-LeFevre R. Aplicación del proceso enfermero. Fundamentos de razonamiento clínico. 8. edizioa. Lippincott Williams & Wilkins. Bartzelona. 2014.

3.– Ackley BJ, Ladwing GB. Manual de diagnósticos de Enfermería. Guía para la planificación de los cuidados. 7. edizioa. Madril. Elsevier Mosby. 2006.

4.– Grossman S, Porth C. Porth. Fisiopatología. Alteraciones de la salud. Conceptos básicos. 9. edizioa. Bartzelona. Wolters Kluwer. 2014.

5.– Smeltzer SC, Bare BG, Hinkle JL, Cheever KH. Brunner eta Shudarth. Enfermería Médico-Quirúrgica. 2. liburukia. 12. edizioa. Philadelphia: Lippincott Williams & Wilkins. 2013.

6.– Smith S F, Duell D J, Martin C. Técnicas de enfermería clínica: de las técnicas básicas a las avanzadas. 7. edizioa. 2 liburukia. Pearson Prentice Hall. Madril. 2009.

7.– Bulechek G, Butcher H, Dochterman JM. Clasificación de intervenciones de enfermería (NIC). 7. edizioa. Bartzelona: Elsevier. 2018.

8.– Herdman TH, Kamisuru S, Editores. NANDA Internacional. Diagnósticos enfermeros: Definiciones y clasificación. Madril. Elsevier. 2019.

9.– Moorhead S, Johnson M, Maas ML, Swanson E. Clasificación de resultados de enfermería (NOC): medición de resultados en salud. 6. edizioa. Bartzelona. Elsevier. 2018.

10.– Cibanal L, Arce MC, Carballal MC. Técnicas de comunicación y relación de ayuda en ciencias de la salud. 3. edizioa. Elsevier España. 2014.

11.– Millan Calenti JC. Gerontología y geriatría. Valoración e intervención. Madril. Editorial Médica Panamericana. 2010.

12.– Ladewig PW, London M L, Moberly S, Olds S B. Enfermería maternal y del recién nacido. 5. edizioa. Madril. Mc Graw-Hill Interamericana. 2006.

13.– Aguilar MJ. Tratado de enfermería del niño y el adolescente: cuidados pediátricos. 2. edizioa. Elsevier España. 2012.

14.– Salas-Salvado J. Nutrición y dietética clínica. 4. edizioa. Elsevier España. 2019.

15.– Galiana Roch JL. Enfermería psiquiátrica. Bartzelona. Elsevier España. 2016.

16.– Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Plana (2017-2021). Eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/44_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/VII_plan_adicciones_eu.pdf

17.– Martín-Zurro A, Jodar G. Atención familiar y salud comunitaria. Conceptos y materiales para docentes y estudiantes. 1. edizioa. Bartzelona. Elsevier España. 2011.

18.– Martínez MA. Conceptos de salud pública y estrategias preventivas. Un manual para ciencias de la salud. Bartzelona. Elsevier. 2013.

19.– Osakidetzaren Txertaketen Eskuliburua. 4. edizioa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 2020. Eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/txertaketen-eskuliburura/web01-a2gaixo/eu/>

20.– Pazientearen Segurtasun Estrategia 20 20. Osakidetza. Eskuragarri:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/PAZIENTEAREN_SEGURTASUN_ESTRETEGIA_20_20.pdf

21.– INOZ Batzordea. Infekzio nosokomiala kontrolatzeko arauen eskuliburua. I. eranskina, Osakidetza, 1997.

22.– Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia. Eusko Jaurlaritza. Osasun eta Kontsumo Saila. 2010. Eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_departamento/eu_def/adjuntos/kronikotasunaren_estrategia.pdf

23.– Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020. 2. edizioa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz. 2014. Eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/libro/euskadiko-osasun-politikak-2013-2020-politicas-de-salud-para-euskadi-2013-2020/web01-a2ingkli/eu/>

24.– Castells Molina S, Hernández Pérez M.: Farmacología en Enfermería, 3. edizioa, Elsevier España. 2012.

25.– Zabalegui A, Lombrana M. Administración de medicamentos y cálculo de dosis. 3. edizioa. Bartzelona. Elsevier. 2019.

26.– 38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalak dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa. Eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/03/1201512e.pdf>

27.– 147/2015 Dekretua. Osakidetza. Pazienteen eta erabiltzaileen eskubideei eta betebeharrei buruzko adierazpena. Eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2015/08/1503424e.pdf>

28.– Sánchez M A, Bioética en ciencias de la salud. Elsevier Masson. 2012.

29.– Erizaintzako kode deontologiko espainiarra. Eskuragarri:

https://www.consejogeneralenfermeria.org/pdfs/deontologia/codigo_deontologico.pdf

30.– Hernández R. Metodología de la investigación. 6. edizioa. Mc Graw-Hill. Mexiko. 2014.

31.– Salamanca AB: El aeiou de la investigación en enfermería. Fuden-Fundación para el desarrollo de la enfermería. 2. edizioa. Madril. 2018.

32.– Herramienta de implantación de buenas prácticas. RNAO. 2. edizioa. 2012.

http://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/Toolkit_en15.pdf

33.– Etxeko tratu txarrei eta emakumeen kontrako indarkeria sexualari buruzko protokolo sanitarioa. Eskuragarri:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_violencia_genero/eu_def/adjuntos/guia_rap_viol_genero_eu.pdf

34.– Jarduketa gida osasun arloko profesionalentzat genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko. Eskuragarri:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_violencia_genero/eu_def/adjuntos/guia_rap_viol_genero_eu.pdf

35.– Presio-ultzerak prebenitzeko eta zaintzeko gida. Osakidetza. 2017. Eskuragarri Osakidetza web orrian:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/erizaintza/upp_eu.pdf

36.– Erorikoak prebenitzeko gomendioak, ebidentzian oinarrituak. Osakidetza. 2015. Eskuragarri Osakidetza web orrian:

<https://www.osakidetza.eus/sites/Intranet/eu/comunicacion/publicaciones/corporativas/Orriak/Gu%c3%adas.aspx>

37.– Zahartze aktibo eta osasungarria izateko gida. Osakidetza. 2017. Eskuragarri Osakidetza web orrian:

<https://www.euskadi.eus/liburua/zahartze-aktiboa-eta-osasungarria-izateko-gida-guia-para-el-envejecimiento-activo-y-saludable/web01-a2gizar/eu/>

38.– Eskularru sanitarioak egoki erabiltzeko gidaliburua. Osakidetza. 2017. Eskuragarri Osakidetza web orrian:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/lehen/Uso_adecuado_guantes_sanitarios_eus.pdf

39.– Ebidentzian oinarritutako gomendioak sarbide baskularra zaintzeko. Osakidetza. 2015. Eskuragarri Osakidetza web orrian:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osteba_publicaciones/eu_osteba/adjuntos/2_ebidentzian_oinarritutako.pdf

GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

1.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa (4., 5., 6., 7., 8., 9., 10. eta 11. artikulua).

2.– 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa (1-29. artikulua).

3.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoarena (1., 2., 3., 4., 17., 18., 19., 42.– 61., 76. eta 77. artikulua).

4.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 19., 20., 21., 22. eta 23. artikulua).

5.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezarzen dituen (1., 3., 6., 9. eta 13. artikulua).

6.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21koa, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17., 18., 19., 20. eta 21. artikulua).

7.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17., 18., 19., 20., 21., 22. eta 23. artikulua).

8.– Eusko Legebiltzarraren 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondatea (1., 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. artikulua).

9.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17. eta 18. artikulua).

10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).

11.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf

12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.

<https://www.euskadi.eus/libro/euskadiko-osasun-politikak-2013-2020-politicas-de-salud-para-euskadi-2013-2020/web01-a2ingkli/eu/>

13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf

14.– Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak 2017-2020.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_departamento/eu_def/adjuntos/stp/lehentasun-estrategiko-sanitarioak-2017-2020.pdf

15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana 2013-2019.

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_euskera/eu_osk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf